

MARKEL OLANO ARRESE

HERRI-ERAKUNDEAK ETA GIZARTE ZIBILA ELKARLANEAN ETORKIZUNA ERAIKIZ

Euskararen normalizazioan azken urteetan emandako aurrerapausoek non dute jatorria: erakunde publikoetan edo gizarte eragileetan? Galdera hori egin nion Xabier Lete zenari 2008ko abenduan, Gipuzkoako Urrezko Domina Mikel Laboari emateko ekitaldian¹. Haren erantzuna laburra bezain irmoa izan zen: Bietan.

Gipuzkoako Foru Aldundiko kultura diputatu ere izan zen poeta, idazle eta kantariaren erantzunak argi asko

1. Gipuzkoako Foru Aldundiak azaroan iragarri zuen aitortza gorena Laboari emateko hartu genuen erabakia; zoritxarrez sortzaile donostiarra abenduaren hasieran hil zen bizirik Urrezko Domina jasotzeko aukerarik gabe. Laboa omenduz, haren sendiari eman genion saria 2008ko abenduaren 23an Foru Jauregian egin zen ekitaldi hunkigarri eta ahaztezinean.

biribiltzen du gure herriaren aurrerabidearen funtsa: herri-erakundeak eta gizarte eragileak elkarren eskutik aritzea, elkarlanean aritzea, ezinbestean elkarrekin jorratzea gure herriaren egunerokoa eta geroa.

XX. mendeari begiratzean, argi asko ikusten dugu euskaldunok aurrerapen handiena herri-erakunde demokratiko propioak eta gizarte zibileko mugimenduak bide berean eta elkarren osagarri aritu direnean lortu ditugula. Ekonomiaren, gizartearen, kulturaren, hezkuntzaren nahiz politikaren arloetan, erakunde publikoen lana eta gizarte eragileena elkarren osagarri izan direnean egin dugu gehien aurrera. Gure egiteko eta izateko moduaren oinarrian elkarlana dago.

Elkarlanean oinarritutako aurrerabide kolektibo horretan koka dezakegu, adibidez, Leterekin solasgai izan nuen euskararen normalizazioaren alde egingdako bide emankorra. Edo ikastolen mugimendu eredugarria ere aipa genezake; egungo euskal hezkuntza euskaldunaren sistemaren jatorrian dago herritik jaiotako mugimendu hori, baina zenbat biderkatu den euskalduntzea ikastolen lanarekin batera euskal erakunde sistemak D eredua

GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIA

martxan jarri eta sustatu zuenetik. Gizarte arlora begiratzean ere, zeinen aberatsa eta eraginkorra den gure hirugarren sektorea, gizarteko beharri zehar erantzuteko sortutako talde, sare eta boluntarioetatik abiatu eta erakunde publikoekin elkarlanean, gure ongizate sistemaren babesaren sostengu dena. Eta zer esanik ez ekonomiaz! Kooperatibagintzaren mugimendu zabala elkarlanaren eta ingurunearekiko arduraren altxor ezin hobea dugu. Baina kooperatibez gain, gure enpresa sarearen eta ekosistema industrialaren zainetan dago beren arteko elkarlana eta erakunde publikoekin batera lehiakortasuna sustatzea. Horren fruitu dira besteak beste, azken hamarkadetako hainbat herri proiektu enpresarial, parke teknologikoen sarea, klusterrak, etab.

Gure izaeran daramagu eta gure eredu sozio-ekonomikoaren muinean daukagu elkarlana. Esparru ezberdinetan, asko eta asko dira elkarlanaren adibide eredugarriak. Lupaz begiratuz gero, gure herriaren azken hamarkadetako historian, lorpen handienek elkarlanean izan dute oinarria; bai herri-lorpenek, bai gizarte-lorpenek eta bai ekonomia-lorpenek.

Alabaina, elkarlanaren kultura ez da estatikoa eta aldaezina, eta ezin uka deza-kegu azken urteotan aurkako aldagaiak ere sortu zaizkiola. Nagusiki bi azpimarratuko

nituzke. Alde batetik, azken hamarkadetan Mendebaldean nagusitzen joan den indibidualismoa eta beroni lotutako gizakiaren balio indibidualistak daude. Norbanakoa hasieratik amaierara helburu den gizarte mota batean, elkarlanak beharrezko dituen balio batzuk ahuldu daitezke eta horrekin batera elkarrekin eraikitako proiektu kolektiboak indargabetu. Baina korrante handi horrekin batera, bestalde, euskaldunok sortu dugun beste oztopo bat ere aipatu nahi nuke. Autokritika eginenez, esango nuke Frankismo osteko eskal erakundetze publikoaren prozesuaren ondoren, errazegi eta gehiegi delegatu ditugula gizarte bezala dagozkigun egiteko eta ardura asko. Erakunde publikoen esku bakarrik utzi ditugu hainbat eta hainbat egiteko, eta horrek gizartea deskapitalizatu du hein handi batean. Xabier Letek idatzi eta kantatu bezala, “ezaren gudaz baietza sortuz” Frankismo garaian zaildutako gizarte eta herri biziak, nahita edo nahi gabe, erakunde publikoak bihurtu zituen euskaldunon beharriaren eta arazo guztien konpontzaile nagusi eta ia bakar. Eta horrek gizarte mugimenduen eta erakunde publikoen artean egon beharreko oreka eta elkarlanean zailtasun eta ahultasun gehiago ekarri zituela esango nuke.

GURE HERRIAREN AZKEN HAMARKADETAKO HISTORIAN, LORPEN HANDIENEK ELKARLANEAN IZAN DUTE OINARRIA

Zorionez, gure kulturaren oinarrian, oraindik ere sustrai indartsuak ditugu bai izaera, bai nortasun eta bai egiteko modu aldetik, elkarlanerako egokiak direnak. Horiek indartzea, sustatzea eta aktibatzea

da egun herri-agintariok, bakoitzak dago-kion herri-erakundearen eremutik, dugun egiteko nagusia. Gure historia hurbilera begiratu, euskal herrigintzan aurrerabide handienak elkarlanean, eta bereziki herri-erakundeen eta gizarte zibilaren arteko elkarlanean, lortu direla benetan sinesten badugu, etorkizunari begira jartzean egitekoa argi dugu: herri-erakundeak zentzu zabalenean ireki eta gizarteko eragileekin etengabeko erlazioaren bitartez, etorkizuna elkarlanean eraikitzea.

EKIMEN ZABALA ETA ANBIZIOTSUA DA, GURE ETORKIZUNA GUK GEUK AUZOLANEAN ERAIKITZEKO BIDE GISA PLANTEATU DUGUNA

Gipuzkoako Foru Aldundian horretan ari gara. Legealdi hasieran helburu nagusizat hartu genuen Gipuzkoako ekonomia sustatzea Gipuzkoa izan dadin munduan desberdintasun txikiena duen lurraldea. Gure ongizatea bermatzeko eta indartzeko, ezinbesteko jotzen dugu lurralde lehiakorra izatea bai ekonomikoki eta bai sozialki. Hori bultzatzeko, Foru Gobernuak Legealdi guztiko plan estrategikoa eta ekonomia sustatzeko planak martxan ditu, eta dagoeneko ari gara fruituak ikusten.

Ez gara, ordea, horrekin konformatzen. Egun erakunde publikoak kudeaketara bakarrik ezin daitezkeela mugatu uste dugu. Gizartearen eraikuntzan eta herrigintzan motor izateko, kudeaketa publikoaz gain, erakunde publikoak gizartearekin eta herritarrekin elkarlanean aritzeko bide berriak jorratu behar ditugula uste dugu. Horregatik, kudeaketa ahalik

eta eragingarrienarekin batera, gobernantza sistema berrian sakontzeko urratsak ematen ere ari gara.

“Etorkizuna Eraikiz” izeneko ekimen zabala martxan daukagu, gobernantza sistema berriaren eredu nagusi gisa. Gipuzkoako Foru Aldundia, gizarte eragileak, enpresak, unibertsitateak eta herritarrak gure etorkizuneko erronkei erantzuteko jakintza, esperientazioa eta herri-politikak lantzen ari gara elkarlanean. Ekimen zabala eta anbiziotsua da, gure etorkizuna guk geuk auzolanean eraikitze bide gisa planteatu duguna. Gipuzkoako Foru Aldundiak gipuzkoarren sinesten du, gipuzkoar gizartean sinesten du, eta argi du historian zehar gure lorpen handienak elkarlanean oinarritu diren bezala, etorkizun oparoena ere elkarlanean bakarrik eraiki dezakegula. Horretarako, Gipuzkoan, elkarlanerako eredia “Etorkizuna Eraikiz” da.

Herri-erakundeok, gure aberriaren eta gizartearen zerbitzura gauden neurrian, egungo gizartearen beharrenei erantzuteko bideak ireki behar ditugu etorkizuna eraikiz. Horretarako gure esku dagoen guztia egitea dagokigu eredu ekonomiko lehiakor eta sendoa sustatzeko, gizarte politika justuenak sustatzeko, gure kultura indartzeko, gure hizkuntza normalizatzeko, gure ongizatea egunero eraikitze bide gisa planteatu duguna. Eta hori eguneroko elkarlanean bakarrik lortu dezakegu. Ezinbestean, herri-erakundeok gizarte eragileekin eta herritarrekin batera lan egin behar dugu, guztiok baikara auzo eta auzotar; guztiok auzolankide.

Ezin dugu herri-erakundeetan bakarrik delegatu gure herriaren etorkizuna, ez herritar bezala eta ez herri-agintari bezala. Gure herria bere etorkizunaren jabe eta arduradun da. Eta horregatik dituen eskubide demokratikoetan ere, elkarrekin egin behar dugu aurrera. Erabakitze bide gisa planteatu duguna. Erabakitze bidearen gauzatzeko bidean ere, herri-erakundeak, gizarte sareak eta herritarrak elkarrekin aritu behar gara. Hor ditugu Eskoziako eta Kataluniako

adibide inportanteak. Erabakitzeko esku-bidearen bidean ere, erakunde publikoek eta gizarte zibilak agenda eta helburu berberak partekatzeak indartsuago eta burujabeago egiten du herri bat.

Gure herria etorkizunean ere indartsua izango da, norabide berean doazen gizarte antolatua eta bizia eta erakunde publiko sendo eta efizienteak dituen heinean. Txikiak gara. Gutxi gara. Denok dugu denon beharra. Eta erakunde publikoen egitekoa da etorkizuna elkarrekin eraikitze bideak erraztea, sustatzea eta gizarteko eragileekin batera etorkizuna eraikitzea. Aukera ezin hobea dugu, eta oztopoak oztopo, badugu halako “zera” bat, halako kultura bat, halako izateko modu bat gure baitan, herri bezala bizirik gauzkana eta kolaboratzera garamatzana. Xabier Leteri berari hitz batzuk lapurtuz²: *“Baina Euskal Herriak funtzionatu egiten du, eta agian hori da miragarria. Izan ditugun arazoak izan ondoren, enpresek, zerbitzuek eta gizarte zibilak funtzionatzen jarraitzea. Badago borondate bat, badago kontzientzia bat”*.

Borondate eta kontzientzia hori badagoela sinesten dut nik ere. Herrigintzan gabiltzanok etorkizuna eraikitze hortxe dugu giltza. Ireki ditzagun herri erakundeetako ateak elkarlanerako, indar dezagun gure gizarte zibila eta etorkizuneko larreetan “izotz-ondoko eguzkia” “jaunduko” da.

**ERABAKITZEKO
ESKUBIDEAREN BIDEAN
ERE, ERAKUNDE PUBLIKOEN
ETA GIZARTE ZIBILAK
AGENDA ETA HELBURU
BERBERAK PARTEKATZEAK
INDARTSUAGO ETA
BURUJABEAGO EGITEN DU
HERRI BAT**

2. Hemen aldizkarian 2004an Joxe Arregik “Xabier Leterekin kontu kontari” elkarriketan esana.